



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2026/1001 DEKRETUA

EUSKARA ARLOKO LITERATUR BEKA ETA LEHIAKETEETARAKO 2026. URTEKO DEIALDIA NORGEHIAGOKA-ARAU BIDEA BALIATUZ

2026/1095 ESPEDIENTEA: AUGUSTIN ZUBIKARAI Nobela beka

2026/1096 ESPEDIENTEA: Nanoipuin lehiaketa

Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 23an hartutako erabakian urte horretako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskinean euskara arloko dirulaguntzak jaso dira.

Aztertu da 2026ko ekitaldirako onartutako aurrekontua, Ondarroako Udalak eskainiko dituen norgehiagoka askeko dirulaguntzak ezartzen dituen. Egiaztatu da aurrekontu-partida hau dagoela euskara arloan, literatur lehiaketa hauetako sariak ordaintzeko:

Aurrekontu-partida	Azalpena	Kredituaren zenbatekoa
070/00 3350-0 480.01.00	Augustin Zubikarai nobela beka	8.000,00€
070/00 3350-0 480.01.00	Nanoipuin lehiaketa	700,00€

Ikusita, baita ere, Ondarroako Udalean aurreikusita dagoela dirulaguntzen banaketa arautzen duen ordenantza orokorraren 14. artikuluan, oro har, norgehiagoka araubidea baliatuz izapidetuko dela.

Ikusi da, bestalde, Udal Idazkariak eta Udal Kontu-hartzaileak aldeko txostenak eman dituztela.

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Ondarroako udalerrian 2026an euskararen arloan egin behar diren literatur lehiaketak zabaltzeko urteko deialdi publikoa onartzea, gehienez, 8.700,00 eurokoa, 070/00 3350-0 480.01.00 aurrekontu-partidaren kargura, eta deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agintzea.

BIGARRENA.- Deialdia hurrengo eranskinetan zehazten denaren arabera izapidetuko da:



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

I. ERANSKINA

AUGUSTIN ZUBIKARAI NOBELA BEKA - XXVI. edizioko oinarriak - 2026. urtea

LEHENA.- Xedea eta aplikazio-eremua

Beka-deialdi honen xedea da egileek euskarazko literatura sor dezaten sustatzea euskal kultura aberastu eta idazleen lana bultzatzeko.

Sari honetara aurkeztuko diren lanen ezaugarriak hauek izango dira:

a. Nobela proiektuak:

Proiektuak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez badira.

Nobela gauzatzeari begira, luzera aldez aurretik zehazten zaila bada ere, liburua osatzeko adina izan beharko du: 150.000 karaktere, gutxienez.

Nobela izango den horren lagin bat aurkeztuko da, gutxienez, hamabost mila eta berrogei mila karaktere bitartekoa, eta nobela izango denaren azalpen zehatza, bi mila eta sei mila karaktere bitartekoa.

b. Lanaren jabetza: Beka jasotako lanaren jabetza egilearena izango da. Alabaina, lan horrek ezingo du beste inongo beka edo saririk jaso, ez laguntzaren aurretik ez eta ondoren ere, argitaratu osteko sariak izan ezik.

c. Nobela argitaratzea:

Behin Ondarroako Udalak saridun izan den egilearengandik amaitutako nobela jasotakoan, lana argitaratzeko aukera izango du, udal-ebazpena eman ondorengo bi urteetan. Udalak eskubidea izango du, baita ere, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko, horien artean, euskarri digitalean.

Argitaratzearen ardura duen argitaletxeak egile-eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari eta argitalpeneko euskarri guztietan Ondarroako Udalak emandako saria dela nahitaez aipatu beharko da.

BIGARRENA.- Araubide juridikoa eta oinarri arautzaileak

Aplikatu beharreko araubide juridikoa deialdi hau onartzen den unean indarrean dagoen Ondarroako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da. Ordenantza hori da laguntza honen oinarri arautzailea, bai eta



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan xedatutakoa ere.

HIRUGARRENA.- Aurrekontu erabilgarria

Beka hau emateko gehieneko diru-kopurua finkatuta dago eta jarraian zehaztutako partidaren kargura egingo da gastua:

Aurrekontu-partida	Azalpena	Kredituaren zenbatekoa
070/00 3350-0 480.01.00	Augustin Zubikarai nobela beka	8.000,00€

LAUGARRENA.- Emate-araubidea eta printzipioak

Deialdi honetan araututako sariak propio horretarako eratutako epaimahai batek ebatziko ditu.

Epaimahaiak jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2026ko urriaren 31 baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritzi gero, beka eman gabe utzi dezake.

BOSGARRENA.- Onuradunak

Eleberriak idazteko proiektuak garatuko dituzten pertsona fisikoak izan daitezke deialdi honetako onuradun.

SEIGARRENA.- Onuradun izateko baldintza orokorrak

1.- Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke laguntza hauen onuradun:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuak ez betetzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkako jarduerarik ez egitea, eta printzipio hori urratzeagatik zehapenik ez jasotzea.

2.- Honako hauek ezin izango dira, inola ere, onuradun izan:

- Pertsona fisikoak, baldin eta beren ibilbidea edo jarduna emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

- b) Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezarako eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan-edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso duten pertsona fisikoak.
- c) Beka hau behin irabazten duenak ezingo du berriz parte hartu.

ZAZPIGARRENA.- Eskabidea aurkezteko epea, modua eta dokumentazioa

1.- Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 2026ko urriaren 10a artekoa izango da.

2.- Modua: Deialdi honi atxikitutako eskaera ereduari egin beharko dira dekretu honetan araupeturiko laguntzak eskuratzeko eskabideak. Udalak telematika bidez eman ahal izango die eredu hori hala eskatzen duten pertsona guztiei.

Pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen kasuan, Ondarroako Udalak Kantoipe kaleko 3.ean duen Erregistro Nagusia aurkeztu beharko dira eskabideak. Era berean, telematikoki aurkeztu ahal izango dira Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez: <https://www.ondarroa.eus/lzapideak>

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako eran eta tokian aurkeztu ahal izango dira.

3.- Eskabidean beren-beregi utziko da jasota jakinarazpenetarako adierazitako helbidea. Eskatzailearen egitekoa izango da Ondarroako Udalari beren-beregi jakinaraztea datuetan izandako edozein aldaketa, bereziki eskatzailearen helbideari eta bankuko datuei dagokienez.

4.- Dokumentazioa: Eskabidearekin batera, hauexek gehitu beharko dira:

- a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, bi mila eta sei mila karaktere bitartekoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, luzera, estiloa, etab.
- b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, hamabost mila eta berrogei mila karaktere bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.
- c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia eskaneatua. Egileei buruzko informazioa udalak gordeko du erabakia hartu arte. Egileak ez du bere nortasuna agerian utz dezakeen ezer idatziko ez laginean ez azalpenean, ez eta agiri horietako ezaugarrietan ere.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen elkarreragingarritasuna



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, eta eskatzaileak eskaeran berariaz aurka egin ezean, Ondarroako Udalak ofizioz ekingo dio honako datu hauek kontsultatzeari, dauzkan elkarreragingarritasun-bideak erabiliz:

- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

BEDERATZIGARRENA.- Eskabidea zuzentzea eta txostenak eskatzea

Ondarroako Udalak, denbora eta modu egokian aurkezturiko eskabideei dagokienez, haxe egiaztatuko du: ea eskabideek laguntzak emateko galdaturiko beharkizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten. Hala ez bada, hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko eskatuko dio eskabidea aurkeztu duenari, eta ohartarazpena egingo zaio: hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

HAMARGARRENA.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

1.- Instrukzio-organoa: Prozeduraren instrukzioa euskara arloko teknikariari dagokio. Instrukzio-organok ofizioz egingo ditu datuak zehaztu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

2.- Balorazio Batzordea: Epaimahai bat eratu eta honela osatuko da:

Epaimahaiburua: Udal euskara saileko zinegotzi ordezkaria edo horrek eskuordetutakoa.

Epaimahaikideak: Udalak izendatutako hiru aditu.

Idazkaria: Udal euskara teknikaria.

Saria eman gabe utzi ahal izango da baldin eta, epaimahaiaren iritziz, lanek ez badute behar adina kalitaterik. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiaren jardunaren ondoren txosten arrazoitu bat egingo da, egindako balorazio teknikoaren emaitza zehaztuz, Alkatetzari emateko proposamen gisa.

3.- Ebazteko eskumena duen organoa: Alkatetza da deialdi hau ebazteko organo eskuduna, epaimahaiak egindako proposamenaren arabera.

4.- Ebazteko epea: Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

kontatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

5.- Publizitatea eta Errekurtsoak: Ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS), egoitza elektronikoan eta udalaren webgunean argitaratuko da, gardentasunari eta datuak babesteari buruzko araudiaren arabera.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari.

HAMAIKAGARRENA.- Zenbatekoa eta mugak

Sariaren zenbatekoa 8.000,00 €koa da eta hori izango da muga. Zenbateko hori bi zatitan ordainduko da, horren erdia urte bakoitzeko, hau da, sariaren izendapena ematearekin batera lehenengoa eta nobela osoa entregatutakoan, bigarrena.

Zenbateko hori sariaren diru-kopuru gordina da. Esleitutako kopuruei dagokien PFEZ-i dagokion atxikipena aplikatuko zaie.

HAMABIGARRENA.- Ukatzeko zioak

Emandako beka ukatzeko zioak izango dira honako hauek:

- a) Dirulaguntza emateko eskaturiko beharkizunak edo deialdi honetako edozein puntu ez betetzea.
- b) Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoan aldean nabarmenki kaxkarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko luke jasotako dirua.

HAMAHIRUGARRENA.- Ebazpena aldatzea

Saria emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok eta, nolanahi ere, edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntza eskuratzeak berau emateko ebazpena aldatzea ekar lezake, baita itzultzea ere.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespina jaso.

HAMALAU GARRENA.- Onuradunaren betebeharrak

1.- Honako hauek egin behar dituzte dekretu honen onuradun direnek:

- a) Helburua bete, proiektua betearazi, jarduera egin edo laguntza emateko oinarria den jokabidea hartu.
- b) Zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen, arauetan ezarritako eran, betiere.
- a) Deialdi honetan parte hartzearekin batera bertako oinarriak ontzat ematea eta men egitea organo emaileak emango dituen ebazpenei lehiaketa garatzean eta oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortu ahal diren gatazkak konpontzeko.
- b) Saria emateko ekitaldi-egunean saria jasotzera etortzea. Halere, justifikatutako arrazoiengatik joaterik ez badu, beste pertsona bat izenda dezake bere izenean saria jasotzeko. Ordezkaritza hori idatziz jakinarazi beharko dio Udalari ekitaldia baino lehen.

2.- Eskatzaileari dagokion edozein betebeharrak ez betetzeak berekin dakar nahitaez kasu bakoitzean ordaindutako diru-kopuruak itzultzeko eskubidea desgitea.

HAMABOS GARRENA.- Justifikazioa

Irabazleak urtebeteko epea izango du, gehienez, ebazpenaren jakinarazpena jaso duenetik eleberria amaitua Ondarroako Udalaren esku ipintzeko. Hori izango da justifikaziorako balioko duen frogagiria.

HAMASEI GARRENA.- Ordainketa

1.- Sariaren izendapena emandakoan eta ebazpena jakinarazitakoan, emandako kopuruaren %100 sartuko da interesdunak adierazitako kontu korrontean. Era honetara ordainduko dio Ondarroako Udalak irabazleari: bekaren diru-kopuruaren erdia, irabazle izendatu ondoren, eta beste erdia, handik urtebetera, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2.- Laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da pertsona edo erakunde onuraduna ez egotea administrazio-bidean ebazpen irmoa eragin duen itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten eraginpean, ez eta Ondarroako Udalak emandako izaera bereko laguntzen esparruan eska daitezkeen itzulketa-betebeharren eraginpean ere.

HAMAZAZPIGARRENA.- Datuen babesa

Ondarroako Udalak, datu pertsonalak babesteari buruzko 2018ko maiatzaren 25eko 2016/679 DBEO betez, jakinarazten du eskaeran egitean emandako datu pertsonalak gordeko direla erakunde honen jabetzakoak diren izaera pertsonaleko datuak gordetzeko fitxategi automatizatueta, erakundearen eskumenekoak diren udal-kudeaketaren berezko eginkizunak gauzatzeko helburuaz. Hala nahi izanez gero, eskubidea izango da datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko Herriarren Arreta Bulegoan (HAB).

Saria edo beka jaso dutenak argitaratzean, baita saria edo beka jaso ez dutenak edo baztertutakoak argitaratzean ere, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) datorren proportzionaltasun-printzipioa zainduko da, bereziki saria edo beka jaso ez dutenek kalterik jasan ez dezaten saria edo beka ez dutela lortu jendaurrean adierazteagatik.

Sari-banaketaren irudiak, saridunarenak barne, Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu ahal izango dira,

HAMAZORTZIGARRENA.- Araudi aplikagarria.

Erabaki honetan aurreikusi ez den guztia Ondarroako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, deialdi bakoitzaren unean indarrean dagoen Aurrekontua Beteazteko Arauan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

II. ERANSKINA

NANOIPUIN LEHIAKETA - XV. edizioko oinarriak - 2026. urtea

LEHENA.- Xedea eta aplikazio-eremua

Lehiaketa honen xedea da egileek euskarazko literatura sor dezaten sustatzea euskal kultura aberastu eta idazleen lana bultzatzeko.

Lehiaketa honetara aurkeztuko diren lanen ezaugarriak hauek izango dira:

- d. Nanoipuinak:
jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez badira.
Bakoitzak, gehienez, 140 karaktere izango ditu, zuriunerik zenbatu gabe; gaia, berriz, librea izango da.
- a. Argitaratzea:
Ondarroako Udalak saridun izan diren lanak argitaratzeko aukera izango du, udal-ebazpena eman ondorengo bost urteetan. Udalak eskubidea izango du, baita ere, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko, horien artean, euskarri digitalean.

BIGARRENA.- Araubide juridikoa eta oinarri arautzaileak

Aplikatu beharreko araubide juridikoa deialdi hau onartzen den unean indarrean dagoen Ondarroako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da. Ordenantza hori da laguntza honen oinarri arautzailea, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan xedatutakoa ere.

HIRUGARRENA.- Aurrekontu erabilgarria

Beka hau emateko gehieneko diru-kopurua finkatuta dago eta jarraian zehaztutako partidaren kargura egingo da gastua:

Aurrekontu-partida	Azalpena	Kredituaren zenbatekoa
070/00 3350-0 480.01.00	Nanoipuin lehiaketa	700,00€



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

LAUGARRENA.- Emate-araubidea eta printzipioak

Deialdi honetan araututako sariak propio horretarako eratutako epaimahai batek ebatziko ditu.

Epaimahaiak jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2026ko urriaren 31 baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritzi gero, beka eman gabe utzi dezake.

BOSGARRENA.- Onuradunak

Nanopuina idazteko proiektuak garatuko dituzten pertsona fisikoak izan daitezke deialdi honetako onuradun, adin mugarik gabe.

SEIGARRENA.- Onuradun izateko baldintza orokorrak

1.- Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke laguntza hauen onuradun:

- d) Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- e) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuak ez betetzea.
- f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkako jarduerarik ez egitea, eta printzipio hori urratzeagatik zehapenik ez jasotzea.

2.- Honako hauek ezin izango dira, inola ere, onuradun izan:

- d) Pertsona fisikoak, baldin eta beren ibilbidea edo jarduna emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.
- e) Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezarazko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan-edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso duten pertsona fisikoak.
- f) Beka hau behin irabazten duenak ezingo du berriz parte hartu.

ZAIZPIGARRENA.- Eskabidea aurkezteko epea, modua eta dokumentazioa

1.- 2026ko urriaren 10a arteko epea dago eskabideak aurkezteko.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2.- Modua: Deialdi honi atxikitutako eskaera ereduari egin beharko dira dekretu honetan araututako laguntzak eskuratzeko eskabideak. Udalak telematika bidez eman ahal izango die eredu hori hala eskatzen duten pertsona guztiei.

Pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen kasuan, Ondarroako Udalak Kantoipe kaleko 3.ean duen Erregistro Nagusia aurkeztu beharko dira eskabideak. Era berean, telematikoki aurkeztu ahal izango dira Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez: <https://www.ondarroa.eus/lzapideak>

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako eran eta tokian aurkeztu ahal izango dira.

3.- Eskabidean beren-beregi utziko da jasota jakinarazpenetarako adierazitako helbidea. Eskatzailearen egitekoa izango da Ondarroako Udalari beren-beregi jakinaraztea datuetan izandako edozein aldaketa, bereziki eskatzailearen helbideari eta bankuko datuei dagokienez.

4.- Dokumentazioa: Eskabidearekin batera, hauexek gehitu beharko dira:

- a) Nanoipuinak. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, nanoipuin bi aurkez ditzake.
- b) Ezizen batez sinatuta bidaliko da nanoipuinta eta, aparte, datu pertsonalak erantsiko dira. Egileak ez du bere nortasuna agerian utzi dezakeen ezer idatziko bere proposamen literarioan.
- c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen elkarreragingarritasuna

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, eta eskatzaileak eskaeraren II. Eranskinean – *Erantzukizunpeko adierazpena* berariaz aurka egin ezean, Ondarroako Udalak ofizioz ekingo dio honako datu hauek kontsultatzeari, dauzkan elkarreragingarritasun-bideak erabiliz:

- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

BEDERATZIGARRENA.- Eskabidea zuzentzea eta txostenak eskatzea

Ondarroako Udalak, denbora eta modu egokian aurkeztutako eskabideei dagokienez, haxe egiaztatuko du: ea eskabideek laguntzak emateko galdaturiko beharkizun eta



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten. Hala ez bada, hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko eskatuko dio eskabidea aurkeztu duenari, eta ohartarazpena egingo zaio: hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

HAMARGARRENA.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

1.- Instrukzio-organoa: Prozeduraren instrukzioa euskara arloko teknikariari dagokio. Instrukzio-organoak ofizioz egingo ditu datuak zehaztu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

2.- Balorazio Batzordea: Epaimahai bat eratu eta honela osatuko da:

Epaimahaiburua: Udal euskara saileko zinegotzi ordezkaria edo horrek eskuordetutakoa.

Epaimahaikideak: Udalak izendatutako hiru aditu.

Idazkaria: Udal euskara teknikaria.

Saria eman gabe utzi ahal izango da baldin eta, epaimahaiaren iritziz, lanek ez badute behar adina kalitaterik. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiaren jardunaren ondoren txosten arrazoitu bat egingo da, egindako balorazio teknikoaren emaitza zehaztuz, Alkatetzari emateko proposamen gisa.

3.- Ebazteko eskumena duen organoa: Alkatetza da deialdi hau ebazteko organo eskuduna, epaimahaiak egindako proposamenaren arabera.

4.- Ebazteko epea: Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

5.- Publizitatea eta Errekurtsoak: Ebazpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS), egoitza elektronikoan eta udalaren webgunean argitaratuko da, gardentasunari eta datuak babesteari buruzko araudiaren arabera.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari.

HAMAIKAGARRENA.- Zenbatekoa eta mugak

Lehiaketa bidez banatu beharreko zenbatekoa 700,00 €koa da eta hori izango da muga.

Sarien zenbatekoak: Hiru sari emango dira. Lehenengo saria 400 €-koa; bigarren saria 200 €-koa eta hirugarren saria 100 €-koa.

Zenbateko horiek sari bakoitzaren diru-kopuru gordinak dira. Esleitutako kopuruei dagokien PFEZ-i dagokion atxikipena aplikatuko zaie.

HAMABIGARRENA.- Ukatzeko zioak

Emandako beka ukatzeko zioak izango dira dirulaguntza emateko eskaturiko beharkizunak edo deialdi honetako edozein puntu ez betetzea.

HAMAHIRUGARRENA.- Ebazpena aldatzea

Saria emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok eta, nolanahi ere, edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntza eskuratzeak berau emateko ebazpena aldatzea ekar lezake, baita itzultzea ere.

Egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso.

HAMALAU GARRENA.- Onuradunaren betebeharrak

1.- Honako hauek egin behar dituzte dekretu honen onuradun direnek:

- c) Helburua bete, proiektua betearazi, jarduera egin edo laguntza emateko oinarria den jokabidea hartu.
- d) Zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen, arauetan ezarritako eran, betiere.
- c) Deialdi honetan parte hartzearekin batera bertako oinarriak ontzat ematea eta men egitea organo emaileak emango dituen ebazpenei lehiaketa garatzean



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

eta oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortu ahal diren gatazkak konpontzeko.

- d) Saria emateko ekitaldi-egunean saria jasotzera etortzea. Halere, justifikatutako arrazoiengatik joaterik ez badu, beste pertsona bat izenda dezake bere izenean saria jasotzeko. Ordezkaritza hori idatziz jakinarazi beharko dio Udalari ekitaldia baino lehen.

2.- Eskatzaileari dagokion edozein betebeharrak ez betetzeak berekin dakar nahitaez kasu bakoitzean ordaindutako diru-kopuruak itzultzeko eskubidea desegitea.

HAMABOSGARRENA.- Justifikazioa

Ondarroako Udalaren esku ipinitako lan hori bera izango da justifikaziorako balioko duen frogagiria.

HAMASEIGARRENA.- Ordainketa

1.- Sariaren izendapena emandakoan eta ebazpena jakinarazitakoan, emandako kopuruaren %100 sartuko da interesdunak adierazitako kontu korrontean.

2.- Laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da pertsona edo erakunde onuraduna ez egotea administrazio-bidean ebazpen irmoa eragin duen itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten eraginpean, ez eta Ondarroako Udalak emandako izaera bereko laguntzen esparruan eska daitezkeen itzulketa-betebeharren eraginpean ere.

HAMAZAZPIGARRENA.- Datuen babesa

Saria edo beka jaso dutenak argitaratzean, baita saria edo beka jaso ez dutenak edo baztertutakoak argitaratzean ere, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) datorren proportzionaltasun-printzipioa zainduko da, bereziki saria edo beka jaso ez dutenek kalterik jasan ez dezaten saria edo beka ez dutela lortu jendaurrean adierazteagatik.

Sari-banaketaren irudiak, saridunarenak barne, Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu ahal izango dira,



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

HAMAZORTZIGARRENA.- Araudi aplikagarria.

Erabaki honetan aurreikusi ez den guztia Ondarroako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, deialdi bakoitzaren unean indarrean dagoen Aurrekontua Betearazteko Arauan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.

HEMERETZIGARRENA.- Interpretazioa eta hizkuntza-araubidea

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.

Ondarroan, sinadura digitaleko datan.

Sin.: Alkatea
Urtza Alkorta Arrizabalaga